

**IRAINA, EUSKARA KOLOKIALAREN
HARROBIEMANKORRA**

Badira dagoeneko bospasei urte Euskaltzaindiak emandako arau berriak lantzeko, Iralek eskainitako R300 izeneko ikastaroa eskatu nuela. Zorionez, eskaera onartu egin zidaten. Zorionez diot Donostiako Iralen egindako ikastaroa guztiz onuragarria izan zitzaidalako nire euskara kamutsa zorrozteko eta buruan jira-biraka nituen zenbait zalantza argitzeko. Bertako irakasleen lana bikaina izan zen eta lerro hauetatik nire eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiet.

Ikastaro horretan arloka sailkatu gintuzten bertaratutako irakasle-ikasleak. Aide batetik zientzietakoak, bestaldetik letretakoak eta hirugarren multzo batean hizkuntzetakoak. Eskoletara joateaz gain bagenituen gure ariketak, gure etxeko lanak eta gure jakintza-arloari zegokion txosten bat edo idazlan bat egin beharra. Euskara arloko hiru irakasle geunden talde hartan: Koba Gartzia erdi santurtziarra erdi berangotarra, Hondarribian finkaturiko Jon Zelaia onatiarra eta ni neu. Lanak berezia behar zuen izan, eta gure artean luze hitz egin ondoren, gaur egun horren beharrezko jotzen dugun hizkera kolokialaren aldetik zer edo zer egitea erabaki genuen.

Euskara kolokiala denon ahotan dagoen gaia da. Euskara batu formala egina dago, bere korpua aski osatua... baina gure hizkera kolokialaren aldetik hutsune handia sumatzen da,

hiri handi erdaldunduetan, gehienbat. Aipaturiko guneetan gure gazteek ez dakite eguneroko bizimoduan ikastolan edo eskolan ikasitako euskara batu formaletik ateratzen. Berdin-berdin hitz egiten dute irakasleekin, euren ikaskideekin, haurrekin, jende helduarekin... eta baita zakurrekin ere, hau da, beti erregistro bera erabiltzen dute. Gehienetan oso euskara motela egiten dute, piperrik gabea, gatzik gabea... eta hori dela eta, graziaren bat egin nahi dutenean, askotan, ia beti, esango nuke nik, erdarara jotzen dute, edota bestela, erdaratik zuzenezuzenean hartutako kalkoak erabiltzen dituzte. Euskara bizi-bizirik dagoen eskualdeetan egoera ez da bera, euskal hiztunek erregistro eta baliabide ugari ezagutzen eta erabiltzen dituztelakoz.

Euskara kolokiala dela eta, gauza aunitz esan dira eta bide ugari jorratu, askotan itsu-itsuan eta erdararen eredutik abiatu-rik. Adibidez, oso zabaldua egon da gure artean, euskarak argot baten gabezia zuela azaltzen zuen topikoa. Eta egia da, euskaldunok lexikoaren arloan, gauzak izendatzean, hutsunea daukagula aide horretatik, baina horrek ez du esan nahi argotik ez daukagunik, gure argota, neurri handi batean, aditzean baitago, hitanozko formetan, hain zuzen ere. Eta beste hizkuntzetan lexikoaren bidez adierazten duten argot hori, euskaldunok hitanoaren bitartez egiten dugu. Gaur, euskara batuak badu bere hitanoa, eta horrez gain, euskalkiek eta herrietako hizkerak ere badute euren hitano berezia. Eta horixe da, nire irudikoz, gazteekin landu beharra daukaguna, argot-hizkera zabaldu beharra daukagula esaten dugunean, bai ahozko erregistroan eta bai gure literatura idatzian ere. Bide emankorra izan daitekeelakoan nago.

Baina horrez gain, lexikoan badira hizkera kolokiala izugarri aberasten duten bestelako hizkuntz baliabideak, esate baterako: biraoak, hitz potoloak, haur hizkeran erabilitako forma ugari bezain koloristak, eta azkenez, gure irainak. Guk, haur hizkerarekin batera, azken arlo hori aukeratu genuen Iralen

aurkeztu behar genuen txostenerako. Horretarako bi bide jorratu genituen: ahozko galdetegia herrialdez herrialde eta eskualdez eskualde, eta euskal hiztegien hustuketa. Lauzpabost hilabetetan lortutako emaitza biziki emankorra izan zen, 3000 irain inguru bildu baikenituen. Gero-Mensajero argitaletxeak plazaratzeko bidea eskaini zigun eta horrela hiztegi moduan atera zen gure liburuxka: *Irainka. Euskal Irainen bilduma*.

Hiztegi horretan hitzak alfabetikoki antolatu genituen, euren esanahia azalduz. Zenbaitetan irain horiek emakumeak edo gizonezkoak, edota haurrak bakarrik iraintzeko balio dutenean, horrela adierazi dugu. Bestetan, iraina zabalkunde raurritzekoa izan daiteke, hau da, eskualde edo herri bakar batean erabiltzen denean; kasu honetan eskualdea edota herria zehaztu dugu. Gauza bera egin dugu euskalki batekin identifikatzen denean, edota Iparraldean edo Hegoaldean bakarrik erabiltzen denean. Esanahia ematerakoan, batzuetan bi, hiru edo adiera gehiago dau denean, denak azaldu ditugu, eta ahal izanez gero, adibide bana emanez.

Badakigu gure hiztegin hau ez dela Ian biribila, aunitz falta baitzaio behar den bezala jorratzeko. Baina bai abiapuntua geroan Ian hobeak egin daitezten. Gaur, guk ere, askoz irain gehiago daukagu gure ordenagailuetan bilduta, bigarren argitarapen baten zain. Irainak nolabait antolatzeko hiztegien bidea aukeratu bagenuen ere, erabilitako osagaien aldetik sailkapen bat egin zitekeela garbi ikusi genuen. Horra hor:

1.- Klasikoak, hau da, betidanik oso entzute handikoak izan direnak eta beste multzoetan sar ez daitezkeenak: babo, alen, ergel, kirten, lerdo, lelo, ziztrin, alproja...

2.- Sexua, soilik, aipatzen dutenak: alu, zakil, potroso, zakilote, buztantxo, zakiltxo, zakilpistola, pittitto, pitilin, pitilintxo, pito, txilibito, koxkabilo, potto, poto, potxo, pottorro, potxorro, zupo, zupote...

3.- Animaliak eta sexua nahasten dituztenak: potrozorri, zerripotro, zerripotroso, zerribuztan, astobuztan, astazakil, astapotro, astotranka, urdezakilhandi, katabuztan...

4.- Animaliak, soilik, aipatzen dutenak: asto, astama, zerri, zerrama, urde, urdanga, mando, zakur, putre, bixigu, mozolo, azeri, otso, pizti, zapaburu, azpisuge, sugedorri, sugegaizto, zomorro, zorritxo, oilo, oilaloka, oilobusti, oilar, arrain, , zaldiero, zaldibero, txarrizikin, animaliapuska, aberepuska, aketz, apo, labezomorro, makailu, lapazorri, saguxahar, gautxori...

5.- Animalien gorputz-atal bat aipatzen dutenak: xoxoburu, txoriburu, katabegi, oilarbuztan, oilarmoko, sugemihi, txoribuztan...

6.- Landareen berri ematen digutenak: arbilore, artaburu, azaburu, azaosto, babalore, lilitxo, mazusta, bidelili, astakardo, mazusta, marrubigazte, pikupatsa, tipulaburu...

7.- Kolorea aipatzen dutenak: zuri, beltz, gorri, gogourdin, hezurbeltz, mihizuri, sugedorri, atorzuri, txapelzuri, hankagorri, kaxkagorri...

8.- Adjektibo hutsak direnak: zikin, baldar, zarpail, faltsu, trakets, maltzur, gaizto, zital, mozkorti, mozkor, ihar, potolo, gizen, gezurti, zazar, zatar, motel, hitzontzi, harro, harroputz, geldo, kakati...

9.- Izenak eta adjektiboak lotzen dituztenak: muturzikin, burugor, buruhaundi, kaxkamotz, kaxkazuri, sudurluze, ahobeltz, ahobero, sudurmotz, hankaluze, ipurdibero, mingainluze, lepozabal, jainkottiki, hankaoker, begitrixte....

10.- Aurrean, trinkotasuna emateko, mari- aurrizkia daramatenak: ariapain, marilerdako, maritxoro, maribideetako, maribihurri, marimatraka, maribandera, marisarjento, marimutil, marineska, marigizon, marigaizto, maripuzker, mariputz, marisaltsa, marimaisu, marimaistra, marisukalde, marilapiko, mariergel, marizirika, marilerdo, marikaka, marikontra, marifardel, mariturrutta, marifraxku, marikankailu, marisorgin, marimono-

na, raarimarmita, marizakar, maripittito, marimarkesa, maripot-
torro, marikalpar, marizomorro...

11.- Aurrean, trinkotasuna azaltzeko, beti- aurrizkia darama-
tenak: Betigaizto, betizital, betini, betikontra, betilerdo, betika-
ka, betizikin, betizakar, betizarpail, betitxoro...

12.- Aurrean, kategoria ematen ez duela adierazteko, sasi-
aurrizkia daramatenak: sasimaistra, sasimaisu, sasigizon, sasia-
paiz, sasimutil, sasineska...

13-- Akats fisikoen berri ematen dutenak: besomotz, en-
tzungor, begibakar, antipar, ipurdifrontoi, ipurdipandero, bular-
marmita, mingainluze, begihaundi, hortzaundi, hankamehe...

14.- Irain politikoak: frantximant, frantseskume, piperpote-
ro, hedezuri, txapeloker, sardinzahar, mendizorri, eltzetxo, su-
durtalo...

15.- Bestelakoak, hau da, aurreko multzoetan sartzen ez di-
renak: segapoto, arraztalu, gizajopastel, kaxkoi, gizontxaperu,
txorimalo, putakume, erretxin, kankailu, kaskailu, bilaba, ato-
rrantea...

Amaitzeko, gure hiztegin hau, Euskal Herriko ikasle guz-
tiei eskaini nahi diet, iraindu nahi dutenean, euskaraz egin de-
zaten, eta ez erdaraz edota erdal kalkoak erabiliz. Euskara ez
da beste hizkuntzak baino gehiago, baina ez guttiago ere.
Kode osoa denez, denetik dauka, eta gainera gure-gurea da.

Joseba Aurkenerena Barandiaran